

BALIO PROPOSAMENA



Gure hotelak ezindu fisikoentzat eskaintzen dituen instalazioak ezin hobeto diseinatuta eta garatuta daude. Gure helburu nagusia, giro familiar bat lortzea da; horregatik denetako aktibitateak eskaintzen ditugu elkarrekin ezagutzeko eta esperientzia ahalik eta atsegina eta errazena bizitzeko.

Ingurua bisitatzeko ezin hobeto programatutako jarduerekin batera, alde batetik, hotelean zehar mugitzea errazten duten instalazioak ditugu, eta, bestetik, era guztietako jarduerak egitea errazten dituztenak, hala nola, igerilekura sartzea, gimnasia joatea... Gainera, ezindu fisikoei laguntzeko prest egongo diren monitoreak hotelean zehar ibiliko dira norbaitek edozein gauza behar badu.

Hotela arazo fisikoak dituzten bezeroen bizitza ahalik eta errazena egiteko hornituta dago. Beste hotelekin konparatuz, desberdinak egiten gaituzten zerbitzuak eskaintzen ditugu; esate baterako, buffet automatiko bat, janaria uhal baten bidez mugitzen duena, bezeroek janaria zailtasunik gabe har dezaten, teknologia aurreratuak igerilekuetan, pasabideetan, kirolgunean...

Izarra Hotel Bungalow-a urte osoan dago irekita, urtaro guztietan joateko prestatuta baitago. Nahiz eta, neguan ezin erabili kanpoko igerilekua edo hondartzara joan, beste aukera batzuk ditugu. Hala nola, estalitako igerilekua, barruko gimnasioa, kirol zelai estalia...

Jendea neguan lanean dagoenez, oporretara joateko zailtasunak dituzte, horregatik pentsatu dugu ideia ona litzatekeela olinpiada paralinpikoetako parte-hartzaileak etortzea, gure instalazio espezializatuak eurentzat erabil ditzaten. Gure ustez, pozgarria izan daiteke, bai taldearentzat, gure kantxak eta gimnasioak erabil ditzaketelako, bai guretzat, gure hotela sustatzeko.

Gure ustez, ideia hori erabilgarria izan daiteke, halaber, beren baldintzengatik kirola egitera ausartzen ez diren pertsonen bizimodu hori sarrarazteko. Talde paralinpiarreko kideek klaseak emango dituzte eta hasiberriak motibatuko dituzte kirola egitera anima daitezen, haien kondizio fisikoei garrantzia eman gabe.

Badakigu hotel asko daudela, baina gurea besteetatik desberdina da, esperientzia paregabea eta %100ean egokitua bermatzeko beharrezko langile eta materiala izateaz gain; inguruneaz gozatu ahal izateko moldatutako jarduerak eskaintzen ditugu.

Uste dugu bezeroak prest egongo direla esperientzia zoragarri hau ordaintzeko, primeran pentsatuta eta programatuta dagoelako bezeroak ahalik eta erosoan egon daitezen eta gure instalazioetako txoko guztiez bete-betean gozatzeko. Prezioa gure bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzu guztietarako egokia da, hala nola igerileku espezializatuak, buffet automatikoa zerbitzariekin, solairu bakarreko instalazioak... Gure hotelak era guztietako instalazioak ditu gure bezeroei esperientzia segurua, dibertigarria eta lasaia bermatzeko.